


Euskal Autonomia Erkidegoko azalera handien eta elikadura-kateen salmentek % 9,7ko igoera izan dute 2020ko ekainean

Elikadura-produktuen salmentek % 8,9ko igoera izan dute, eta gainerako produktuenek, berriz, % 11,2koa

EAEko azalera handien eta elikadura-kateen salmentek urtetik urterako % 9,7ko igoera izan dute 2020ko ekainean (prezio konstanteetan), lan-egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek landutako datuen arabera. 2020ko maiatzarekin alderatuta, urtarokotasunik gabeko terminoetan, salmentek % 14,9ko igoera izan dute.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Egutegi-ondorioak atera ondoren, azalera handietan eta elikadura-kateetan elikadura-produktuen salmentek urtetik urterako % 8,9ko igoera izan dute, eta gainerako gaien salmentek, berriz, % 11,2ko igoera, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Maiatzarekin alderatuta, eta urtaro-ondorioak atera ondoren, elikagaien salmentek % 2,5eko beherakada izan dute prezio konstanteetan, eta gainerako produktuen salmentek, berriz, % 74,6 igo dira, nagusiki 2020ko ekainean establezimenduak erabat ireki zirelako.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Ekaina 2020 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	9,7	14,9	0,3
Araba/Álava	11,5	15,7	1,3
Bizkaia	9,5	17,2	-1,1
Gipuzkoa	9,1	10,9	2,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	8,9	-2,5	10,5
Beste produktuak	11,2	74,6	-20,0
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	1,2	0,1	1,5

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Lurralde historikoak kontuan hartuta, salmenten urtetik urterako igoera bat gertatu da guztietan, prezio konstanteetan. Egutegi-ondorioak atera ondoren ikus daitekeenez, igoera % 11,5era iritsi da Araban, % 9,5era Bizkaian eta % 9,1era Gipuzkoan. Aurreko hilabetearekin alderatuta ere, portaera positiboa izan da. Izan ere, % 15,7eko igoera izan da Araban, % 17,2koa Bizkaian eta % 10,9koa Gipuzkoan.

2020ko urtarriletik ekainera bitarteko metatutan, azalera handietako eta elikadura-kateetako salmenta-indizeak % 0,3ko igoera izan du, gainerako produktuen salmentan izandako % 20,0ko jaitsieraren ondorioz; izan ere, elikaduran % 10,5eko igoera metatua erregistratu da. Arabako eta Gipuzkoako lurraldeetan, urteko metatuek % 1,3ko eta % 2,3ko igoera izan dute, hurrenez hurren. Bizkaian, berriz, metatutako bilakaera negatiboa izan da, % 1,1eko beherakadarekin; hori guztia prezio konstanteetan eta lan-egutegiaren termino homogeneoetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko azalera handietako eta elikadura-kateetako langileen kopurua % 1,2 igo da aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta % 0,1eko igoera izan du urtarorik gabeko terminoetan, aurreko hilabetearekin alderatuta. 2020ko lehen sei hilabeteetako metatutan, langileen kopuruak % 1,5eko igoera izan du 2019ko aldi berarekin alderatuta.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste batzuetan kontuan hartutako langileen artean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente (ABEEE) bati lotutako pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan langileei buruz jasotzen duen definizioari jarraikiz.

COVID-19AREN KRISIAK AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA-KATEETAKO INDIZEAN DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Ekainaren 21ean, **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan deklaraturako alarma-egoera amaitu zen. Bertan hartutako ezohiko neurriek zuzeneko eragina izan dute azalera handietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizean parte hartzen duten establezimenduen jardueran.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei, zirkunstantziak gorabehera egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, ekaineko indizea laginaren **% 88,10eko estaldurarekin** kalkulatu da (laginaren informazioa uztailean bildu da).

Egutegi-efektuen zuzenketan eta serieen urtarokotasuna kentzean erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaietan izan duten eragina jasotzen dute, Europar Batasunako Estatistika Bulegoak (Eurostat) [*Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis*](#) gida metodologikoan bildutako gomendioei jarraikiz.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62